



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 28an

5 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Casanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

—Fustiñanako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (19. or.).

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Cascanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Cascanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Cascanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
- V. Finantza-egoerako orriak: 1997ko aurrekontuaren betetzea (4. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendioak (5. or.).

Eranskinak:

1. Finantza-pasiboen zerrenda (11. or.).
2. Organigrama (11. or.).
 - Cascanteko Udalak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak (12. or.).
 - Kontuen Ganbararen erantzunak, Cascanteko Udalak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioei buruzkoak (16. or.).

I. SARRERA

Cascanteko Udala Tuterako merindadean dago eta zuzenbidezko 3.560 biztanle ditu, 1996ko maiatzaren 1eko azken erroldaren arabera.

Udalak ez du erakunde autonomo edo enpresa publikorik, eta hurrengo mankomunitate, partzuergo eta talde edo elkarteetan sarturik dago:

- Hondakin solidoen Erriberako mankomunitatea.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuen "Valle del Queiles" mankomunitatea.
- "Navarra Sur" kirol mankomunitatea
- Eder turismo partzuergoa
- Cascante, Fitero eta Cintruenigoko ur-mankomunitatea.
- Cascante, Murchante, Ablitas, Monteagudo, Tulebras eta Barillasko bake-epaitegien idazkaritzaren bilgunea.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari uztailaren 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Cascanteko Udalaren (hemendik aurrera, Udala) 1997ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontu betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

- a) Cascanteko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.

b) 1997ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, ezartzeko diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren finantza-egoera 1997ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Cascanteko Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1997ko ekitaldiari dagokiona.

Aurrekontu-kontabilitatean baino ez du jasotzen Udalak bere eragiketak. Ondorioz, dirusarerra eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari lotu zaio lana, eta antolamendu, kontabilitate eta barne kontroleko alde batzuk aztertu dira.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta araei men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun froga guztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik Udalari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoan arabera.

Udalak ezarrita duen kontabilitate-sistemaren ondorio dira gure lanari eragin dioten mugak; izan ere, aurrekontuaren betetzea jarraitu besterik ez du egiten sistemak, eta ez du ekitaldi bakoitzaren amaierako ondare-egoera islatzeko kontabilitate orokorrik.

Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu txostenean, eta bi eranskin ere jarri ditugu: bata 1997ko abenduaren 31n zegoen finantza-pasiboen zerrendarekin (1. eranskina), eta bestea entitatearen organigramarekin (2. eranskina).

Zelaiko lana 1998ko maiatz-ekainetan egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Cascanteko Udaleko langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egin duelako.

IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Cascanteko Udalaren 1997ko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

IV.1. AURREKONTUAREN GARAPENARI ETA BURUTZEARI DAGOKIENEAN.

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak arrazoiz islatzen ditu Udalak fiskalizatutako ekitaldian burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aurrekontu-egozpen oker batzuk daude, eta 1997ko ekitaldiko eragiketen mozketan ez da sortzapenaren irizpidea zorrotz aplikatu. Aipatu alderdi horiek, hala ere, ez dute funtsezko eragirik udalak ekitaldi horretan burutu duen jardueraren isla orokorrean.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1990etik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Cascanteko Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da, nahiz eta indarreko arauen hausteei antzeman zaien; txosten honetan zehar iruzkinduko dira horiek.

IV.4. FINANTZA-EGOERA

Cascanteko Udalak 1997ko abenduaren 31n duen egoera ekonomiko eta finantzarioak bide emanen luke, hasieran behintzat, etorkizuneko konpromisoei aurre egiteko.

Udaleko diruzaintza ere egoera onean dago, epe laburrera, eta autofinantzaketa-gaitasun ona azpimarratu behar da, zorpetze-mugatik beheiti dagoen zorpetze-mailarekin batera.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, Udalak landu duen aurrekontu-informazioak ekitaldiko gastu-dirusarrerak arrazoiz islatzen dituen arren, hauxe adierazi behar dugu:

- Udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Toki Sektore Publikoari ezar dakioken Kontabilitate Plan Orokorra ezartzen jarraitu, udalaren jarduerari buruzko informazioa baterabilitzeko tresna gisa.

b) Barne-kontroleko bideak indartu, kontratazio, erosketa eta diruzaintza alorretan, batez ere,

eskura dituen giza- eta gauza-baliabideak kontuan hartuz.

- Finantzaketaren ikuspuntutik, aurrezki gordin positiboa erakusten du, eta horrek bide emanen dio hurrengo ekitaldietako konpromisoerik aurre egiteko.

V. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK: 1997ko AURREKONTUAREN BETETZEA

Jarraian, Cascanteko Udalaren finantza-egoerako orriak aurkeztuko ditugu, 1997ko ekitaldiari dagozkionak, hain zuzen:

1997ko ekitaldiko gastu-aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Likidaturiko betebeharrak	Likidaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea %	Aitorturiko guztizkoaren gaineko %
Itxitako ekitaldien erresultak	0	17.708.699	0	17.708.699	17.708.699	17.708.699	-	100	5
Langileen gastuak	1	103.627.302	2.996.096	106.623.398	105.784.654	104.190.652	1.594.002	99	32
Ohiko ondasun eta zerb. erostea	2	93.901.063	10.550.000	104.451.063	86.758.331	83.355.420	3.402.911	83	26
Korrituak	3	15.163.637	-	150.163.637	13.576.538	12.001.043	1.575.495	90	4
Ohiko transferentziak	4	48.205.962	(843.768)	47.362.194	46.190.329	46.095.508	94.821	97	14
Inbertsio errealak	6	96.000.000	-	96.000.000	29.797.665	29.156.455	641.210	31	9
Kapital transferentziak	7	-	2.244.748	2.244.748	2.244.748	2.244.748	-	100	1
Finantza-pasiboen aldaketa	9	28.712.259	-	28.712.259	26.373.503	23.658.902	2.714.601	92	9
Guztira		403.318.922	14.947.076	418.265.998	328.434.467	318.411.427	10.023.040	79	100

1997ko ekitaldiko dirusarrera-aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Likidaturiko eskubideak	Likidaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea %	Aitorturiko guztizkoaren gaineko %
Itxitako ekitaldien erresultak	0	22.464.085	606.463	23.070.548	23.070.548	18.067.115	5.003.433	100	6
Zuzeneko zergak	1	71.500.000	1.791.406	73.291.406	76.753.644	62.636.459	14.117.185	105	21
Zeharkako zergak	2	12.150.000	-	12.150.000	13.090.922	12.384.700	706.222	108	3
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	53.649.664	2.787.638	56.437.303	62.254.350	58.887.890	3.366.460	110	17
Ohiko transferentziak	4	184.257.558	5.966.123	190.223.681	159.059.162	135.169.415	23.889.747	84	43
Ondare dirusarrerak	5	9.053.000	-	9.053.000	9.910.587	9.674.931	235.656	110	3
Inbertsio errealak besterentzea	6	25.000.000	-	25.000.000	25.000.000	25.000.000	-	100	7
Finantza-pasiboen aldaketa	9	30.000.000	-	30.000.000	-	-	-	-	-
Guztira		408.074.308	11.151.630	419.225.938	369.139.213	321.820.510	47.318.703	88	100

1997ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera

	Pezetak
Kobratzeke dauden aitorturiko eskubideak: indarreko aurrekontua	42.315.270
Kobratzeke dauden aitorturiko eskubideak: itxitako aurrekontuak	5.003.433
Aurrekontuz kanpoko eskubideak (ABIL)	–
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(2.407.181)
Ordaintzeke dauden aitorturiko betebeharrak: indarreko aurrekontua	(10.023.040)
Ordaintzeke dauden aitorturiko betebeharrak: itxitako aurrekontuak	–
Aurrekontuz kanpoko betebeharrak (ABIL)	(9.375.479)
Finantza-kontuen saldoa	12.800.494
Guztira	38.313.497

Iturria: Cascanteko Udala

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian, Udaleko antolamendua eta barne-kontrolerako sistema hobetzeko eta, horrekin, kudeaketa hobetzea lortzeko egokitzat jotzen diren ondorio eta gomendio orokorren berri emanen dugu.

VI.1. AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• “Aitorturiko betebeharrak” –aurreko ekitaldietako erresultak kenduz gero– 311 milioi pezeta egiten dute, eta ehuneko 79ko betetze-maila. Aitorturikoen muntak ez ditu behin betiko aurreikuspenak gainditzten, inongo kapitulutan; beraz, gastuetarako kredituak mugatzaile izateko hatsapena errespetatu egin da.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

	Portzentaia
Funtzionamendukoak	79
Inbertsiokoak	9
Finantza-zamakoak	12
Guztira	100

Ageri denez, funtzionamendu gastuak dira elementu nagusia –langileak, ondasunak erostea eta ohiko transferentziak–; inbertsioek eta finantza-gastuek ehuneko 9 eta ehuneko 12 egiten dute, hurrenez hurren.

Betetze-mailari bagagozkio, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 31 besterik ez dute jo inbertsioek. Betetze-maila apal hori eskolako kiroldegia egiteko obretan gertatu den atzerapenari zor zaio, bereziki.

• “Aitorturiko eskubideek” –aurreko ekitaldietako erresultak kenduz gero– 346 milioi pezeta egiten dute, eta ehuneko 88ko betetze-maila.

Kapituluka, betetze-mailak ez du desbideraketa esanguratsurik erakusten, behin betiko aurreikuspenarekin alderatuz gero. Salbuespen bat badago, ordea: finanantza-pasiboen aldaketen kapitulua ez dute likidatu, kanpoko finantzabideetara jo beharrik izan ez delako, hala aurreikusita bazuten ere, eskolako kiroldegien obretako atzerapenaren ondorioz.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

	Portzentaia
Tributuzkoak	44
Ohiko transferentzietakoak	46
Ondarekoak	10
Guztira	100

Ikusten denez, 1997ko aurrekontuaren finantza-iturri nagusiak tributu izaerako dirusarrerak eta ohiko transferentziak dira; ondare izaerako dirusarrek, ordea, ehuneko 10 dira.

1997ko betetzearen egoerak 41 milioi pezeta-ko “aurrekontu superabita” erakusten du, aitorturiko eskubide eta betebeharren arteko aldearen ondorioz.

1997ko abenduaren 31n, ordaintzeke dauden kopuruek, gastuen erresultek, 10 milioi pezeta egiten dute, eta oraingo ekitalditik heldu dira guztiak.

Kobratzeke dagoen kopuruak, dirusararren erresultek, 47 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 5 milioi aurreko ekitaldietatik heldu dira. Kapituluka, ehuneko 57 transferentzien ondoriozko zorrak dira, eta gainerakoa tributu-dirusarretatik dator, funtsean.

Azterketa egiten ari ginela, sortzapean irizpidea zorrotz aplikatuz gero, likidazioa aldatuko zuketean eragiketa batzuk agertu zaizkigu 1997ko aurrekontuaren likidazioan; hona aldaketa horien zenbatekoak:

a) Aurreko ekitaldietako gastu eta dirusarrera batzuk jaso dira, eta, ondorioz, 1997ko aurrekontuaren likidazioak horrelako gehiago ditu, 6,5 eta 8,1 milioi, hurrenez hurren, gutxi gorabehera.

b) 1997ko ekitaldian sortu eta aipatu urteko likidazioan sartu ez diren gastu eta dirusarrerak bagagozkie, aurrekontuak 26,3 eta 9 milioi gehiago beharko litzuke, hurrenez hurren.

c) Hurrengo ekitaldiei zegozkien gastuak jaso direnez, 1997ko aurrekontuaren likidazioak badu horietako 2,7 milioi pezeta gehiago.

Hala ere, esan beharra dago Udalaren irizpideak bat datozela aurreko ekitaldietakoekin.

Beste alde batetik, aurrekontu-egozpen oker batzuei ere antzeman zaie langile, erosketa, tributu-dirusarrera eta dirusarreraren ohiko transferentzien alorretan.

Aurreko lerroaldean arabera, hona gomendioak:

- *Gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-kontabilizazioa sortzapeanaren irizpideari lotu behar zaio, ahalik eta gehien.*

- *Gastuak eta dirusarrerak dagozkien ataletan kontabilizatzea, izaera ekonomikoaren arabera.*

VI.2. 1997ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, Udalak aurkeztu dituen 1997ko eta 1996ko aurrekontu-betetzeetatik abiatuta:

Ratio eta magnitudeak	Milioi pezetatan	
	1997	1996
Superabita	41	4
Aurrezpen gordina (1)	82	50
Aurrezpen garbia (2)	42	5
	Pezetatan	
	1997	1996
Tributu-dirusarrerak biztanleko (3)	42.724	42.580
Per capita inbertsioak	8.370	3.643
Finantza-zama biztanleko	11.222	12.573
Funtzionamendu gastuak biztanleko	67.060	66.344

	Portzentaia	
	1997	1996
Zorpetze maila (4)	12	16
Zorpetze muga (5)	26	17

(1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreraren 1. eta 5. kapituluaren bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.

(2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluaren batuketak.

(3) Tributu-dirusarrerak / zuzenbideko biztanleak: Tributu-dirusarreratzat hartu dira dirusarreraren 1, 2 eta 3. kapituluak.

(4) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100

(5) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100

Kontuan izanda 1996ko datuak ikuskatu gabe daudela, aurreko ratio eta magnitudeak aztertu eta ondorio hauek atera ditugu:

- Aurrezpen gordin eta garbia positiboak dira bi ekitaldietan, eta 1997an nabarmen hasi dira. Udalak baliabide berekiak sortzen dituela erakusten du horrek, inbertsioak finantzatzeko.

- Biztanleko tributu-dirusarrerak eta funtzionamendu-gastuak antzekoak dira bi ekitaldietan. Udalak aurkeztu dituen bi magitude horiek Nafarroako udaletako 1996ko ekitaldiko batez bestekoen antzekoak dira: 43.629 eta 65.156 pezeta, hurrenez hurren.

- Per capita inbertsioak nabarmen igo dira 1997ko ekitaldian, urte horretan obra handiak egin direlako, eskolako kiroldegia obrei ekitea, batez ere.

- Zorpetze-indizea zorpetze-mugaren azpitik dago, eta horrek egoera ona ahalbidetuko du hurrengo ekitaldietan. Hauxe ere gehitu beharko genioke aurrekoari:

a) Lehen eranskinetik ateratzen denez, maileguak direla-eta hartu den zorrak 193.397.970 pezeta egiten du 1997ko abenduaren 31n. Udalak ez du kitapenean sartu Nafarroako Gobernuaren aurrerakina -7.329.342 pezeta-, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketaren atzerape-na zela-eta.

b) 1997ko ekitaldiko finantza-zama hurrengotara heldu da:

	Pezetatan
Zorraren amortizazioagatik	26.373.503
Korrituengatik	13.576.538
Guztira	39.950.041

Finantza-zorra dela-eta, gure ustea da jasan-dako korritu-tasak merkatuko maila arruntetan daudela, zorra 1996an birfinantzatu egin zelako.

Laburbilduz, uste dugu Udalaren egoerak ikusitako joerei eusten badie, zorren epemuga kon-tuan hartuta, Udalak aurre egin ahal izanen diela aipatu pasiboei hurrengo ekitaldietan.

VI.3. KONPROMISOAK ETA BESTELAKO GORABEHERAK

Cascante, Cintruenigo eta Fiteroko udaletako ur mankomunitateari emandako mailegu bateko abalemaile solidario dugu Cascanteko Udala, Fitero eta Cintruenigokoekin batera. Aipatu maile-guaren zenbatekoa 19.544.229 pezeta zen 1997ko abenduaren 31n, eta 1999ko urtean zuen epemuga.

VI.4. BESTELAKO IRUZKINAK ETA KUDEA-KETARAKO GOMENDIOAK.

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esangu-ratsuenei buruzko gomendio nagusiak, antola-mendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko Udalak onetsi beharko lituzkeenak, Ganbararen ustez.

VI.4.1. Aurrekontuak eta kontabilitatea

1997ko ekainaren 30ean onetsi zuen Osoko Bilkurak 1997ko ekitaldiko aurrekontua.

Hona alor honetako kudeaketa-gomendioak:

- *Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak landu eta onesteko.*

- *Toki Sektore Publikoaren Kontabilitate Plan Orokorra ezartzen jarraitzea. Informazio osatua eta udaleko jardueraren jarraipen hobea ekarriko lituzke horrek.*

- *Betetze-oinarriak osatu egin behar dira administrazio- eta kontabilitateko oinarrizko prozedu-rak jasoko dituen eskuliburu batekin. Hurrengoak finkatuko ditu, funtsean:*

a) *Prozedura bakoitzari ezarri beharreko kon-tabilitate-irizpideak.*

b) *Administrazio-zirkuituak*

c) *Aldizkako berdinkatzeak eta egiaztapenak egitea*

d) *Zuzenesteko eta baimena emateko gutxie-neko baldintzak*

e) *Itxiera-eragiketak*

f) *Saldoen azterketa*

VI.4.2. Udal inbentarioa

1990ean egin zuten Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa eta ez dute eguneratu.

Udal inbentarioa eguneratzea gomendatzen dugu, Udalaren jabetzapeko ondasun guztiak fidelki isla ditzan.

VI.4.3. Langileen ordainketak

Hona 1997ko abenduaren 31n Udalaren zerbi-tzuan ari diren langileen zerrenda:

Funtzionarioak	11
Lan-kontratuko langile finkoak	2
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	8
Administrazio-kontratuko langilek	1
Guztira	22

Udaleko idazkaria administrazio-kontratuko langileen barruan sartu da.

Bigarren eranskinean erakusten da Udalaren zerbitzuko langileen organigrama.

Langileen-gastuen artean sailkatu dira 1.686.675 eta 4.745.878 pezeta jotzen duten bi kontusail. Beraien izaerei bagagozkie, ordea, inbertsio errealetan eta ohiko ondasun eta zerbi-tzuen erosketetan sartu beharko liriteke, hurre-nez hurren.

Hauexek gomendatzen ditugu, egindako lana-ren ondorioz:

- *Ordainketa-osagarri guztiak sartzera udal lan-gileen plantila organikoan eta langileen zerren-dan.*

- *Udal langile bakoitzarentzako administrazio-espediente eguneratua edukitzea. Haren gorabe-hera pertsonalak eta lan-biziaren egintza eta dokumentu esanguratsuak jaso beharko lituzke.*

- *Langile bakoitzaren zereginak idatziz jaso-tzea.*

- *Hileroko nominak egitea Udaleko langile guz-tientzako* (Udalaren berrien arabera, gomendio horiek 1998an aplikatu dira.)*

- *Nominak egin eta kontabilizatzeko prozedura idatziz jasotzea.*

(*) Udalak emandako informazioaren arabera, gomendio hauek jada 1998an aplikatu dira.

- *Aplikazio informatikoa ezartzea, nominen prozesua kontabilitatean sartzeko. Langileen kudeaketaren jarraipen eta kontrolaren hobekuntza ekarriko du horrek.**

- *Indarrean dagoen zerga-legedia betetzea, alegia, ordainketa orori PFEZa atxiki behar zaiola.*

- *Montepioaren gastua hileru kontabilizatzea.*

- *Alkate-zinegotzientzako ordainketak Osoko Bilkuran onestea eta bertaratzearen arabeko sistema erabiltzea.*

- *Matrikula-liburua erabiltzea Udalean.*

VI.4.4. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.

Ohiko ondasun eta zerbitzuek aitorturiko gastu guztien ehuneko 26 egiten dute. Ohiko transferentzia bati dagozkion 2.941.200 pezetako kopurua ikusi ahal izan dugu kapitulu honetan.

Hauexek gomendatzen ditugu, egindako lanaren ondorioz:

- *Erosketa sistema bat taxutzea, udal zerbitzu guztiei ezartzeko modukoa. Bertan aurreikusiko dira jarraibideak eta prozedurak erosketen dezentralizatorako, eskumenak delegatzeko, kontuhartzaitzaren zereginetarako eta ordainagiriak eta ordainaginduak aztertu eta bidaltzeko.*

VI.4.5. Inbertsio errealak.

Aitorturiko betebeharrak 29.797.665 pezeta egiten dute: gastu guztien ehuneko 9. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 31 bete da. Aurreko idazatietan iruzkindu bezala, funtsean, eskolako kiroldegiaren obren atzerapenari zor zaio kapitulu honen betetze-ehuneko apala.

Ondoren jarriko dugu 1997ko inbertsioen zehaztapena:

	Likidaturiko betebeharrak (pezetatan)
Gorria eskolak	9.616.714
Eskolako kiroldegia	17.789.711
Bestelakoak	2.391.240
	29.797.665

Espedienteak aztertu ondoren ikusi ahal izan dugu:

- Ordainketa geroratu zaien erosketetan, udalak bere irizpideari jarraitzen dio: ekitaldi bakoitzean ordaintzen den zatia baino ez du ekitaldiko gastutzat jotzen. Hori dela-eta, aurreko ekitaldiei zegozkien 6.500.000 pezeta erregistratu dira 1997ko ekitaldian. Beste alde batetik, aurreko ekitaldietako 6.000.000 pezeta hurrengo ekitaldietan kontabilizatuko dira.

- Eskolako kiroldegiaren obrari dagokion dokumentazioa aztertu dugu eta haxe ikusi ahal izan dugu:

a) Obra enkante bidez esleitu zen eta lizitazioaren aurrekontua 114.718.613 pezeta izan zen.

b) 1997ko martxoaren 21ean izenpetu zuten obra-kontratua eta 1997ko apirilaren 1ean egin zuten zuinketa-akta, baita obrei ekin ere. Obra burutzeko epea 18 hilabete izan zen.

c) Kontratazio mahaiak 1997ko otsailaren 1ean egin zuen bileraren aktak eskainitako proposamen guztiak jo zituen balekotzat eta enpresen batasun bati eskaini zizkion, behin-behinekoz, 108.294.371 pezetatan.

Beste alde batetik, obrako arkitektoaren eta zuzendaritza teknikoaren txostenaren arabera, aipatu enpresa-batasunak aurkeztu duen dokumentaziotik "ateratzen da enpresetako batek ez duela eskatutako enpresa-sailkapenarena betetzen... Gainera, proposamenean aurkeztutako dokumentazioaren arabera, aipatu enpresak obra honen modukoak egiteko egiaztatu duen esperientzia orokorra ez zaigu nahikoa iruditzen".

1997ko otsailean eginiko Osoko Bilkuran esleitu zizkieten obrak enpresa-batasun horri. Hala ere, baimena eman zitzaien aldi baterako batasun gisa ez aritzeko, beti ere, obraren garapenean erantzukizun solidarioa onartzeko dokumentua izenpetzen bazuten. Ez dute horrelako dokumenturik egin, nahiz eta Udalak esan duen lizitazio-proposamenak dakarrenarekin bat datorrela, non erasota geratu baita bi enpresak batera eta solidarioki sartu direla lizitazioan.

d) Udalean behin betiko fidantzari aurre egiteko aurkeztu den abalean, aldi baterako enpresa ageri da, sailkapenik ez duen enpresaren IFZrekin baino ez, ordea.

(*) Udalak emandako informazioaren arabera, gomendio hauek jada 1998an aplikatu dira.

e) Eskatutako sailkapenik ez duen enpresa da obra benetan egin eta dagozkion obra-ziurtagiriak ematen dituena.

f) Obra egiten ari zirela, aurrekontua 27.032.829 pezetatan handitu beharra atera zen –eta aurreko enpresa-batasunari esleitu zaio, besterik gabe–, lurraren baldintzak eta proiektua idazterakoan sartu ez ziren beste arrazoi batzuk zirela-eta. Bada aldaketa horiei buruzko txostena, obraren zuzendaritza teknikoak egina.

g) Lurrean atera diren ustekabeok eta obraren zuzendaritzak antzeman dituen eraikuntza-akats batzuek atzerapena eragin dute, obra bukatzeko eta entregatzeko garaian. Udalak dio esleipendun enpresen aurka joko duela, hala bada, eta kalteordaina eskatuko diela.

h) Udalak kiroledegia obran jasan duen BEZa kengarritzat jo da, Udalak Ekonomi eta Ogasun Departamentuari egin dion kontsultaren arabera, zergatik-eta hirugarren batekin birkontratutako baita haren kudeaketa. ABILen geratu da erasota, 1.619.570 kopuruarekin.

i) Udalak, beste alde batetik, ez du kiroledegia inbertsioan eraso abenduko ziurtagiria, 23.894.174 pezeta egiten duena (BEZa barne).

VI.4.6. Finantza-pasiboen aldaketa

Likidaturiko betebeharrak 26.373.503 pezeta egin dute; alegia, gastu guztien ehuneko 9. Udalak bere finantzaketarako dituen maileguen amortizazioa, 97ko ekitaldikoa, jasotzen dute.

Txosten honen 1. eranskinean jarri dugu maileguen funtsezko zehaztasunak biltzen dituen laukia.

1997ko aurrekontuan jaso dira 2.714.601 pezeta, 1998. urtean epemuga duen amortizazio-kuota bati dagozkionak. Beste alde batetik, 1997.ari dagokion 2.437.672 pezetako amortizazio-kuota bat ez da jaso, 1996an eraso zen-eta.

Finantza-pasiboen aldaketa guztiak aurrekontuan jasotzea gomendatzen dugu. Baita eragiketen mozketak ongi egitea ere, amortizazioak benetan egiten diren aldian jasoak izan daitezten.

VI.4.7. Tributu dirusarrerak

1997ko aurrekontuaren likidazioarekin bat, tributu dirusarrerak Udalaren dirusarrera guztien ehuneko 41 dira.

Ondorengo laukian agertuko da dirusarrera horien betetzea, tributu-kontzeptuka sailkatua:

Tributu kontzeptua	likidaturiko eskubideak (pezetatan)	likidatu guztiaren gaineko %
Landa kontribuzioa	16.140.322	11
Hiri kontribuzioa	47.141.072	31
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	13.472.250	9
Zuzeneko zergak, guztira	76.753.644	51
Zirkulazio zerga	11.517.384	8
Telefonikaren kanona	1.573.538	1
Zeharkako zergak, guztira	13.090.922	9
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZa)	9.634.906	6
Ur horniduraren tasa	25.233.132	17
Zaramaren tasa	11.971.550	8
Kiroledegia tasak	3.771.052	2
Pasabide eta bidea okupatze tasak	2.635.640	2
Nilsaren reintegroa	2.391.881	1
Iberdrolaren tasa	3.910.846	2
Beste tasa batzuk	2.705.343	2
Tasak eta bestelako dirusarrerak, guztira	62.254.350	40
Tributu dirusarrerak, guztira	152.098.916	100

Udalak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira aipatu zerga-tasak.

Eragiketarik sortzapenaren eta izaeraren arabera jasotzeari dagokionez, hona antzemandako akatsen gutxi gorabeherako zenbatespena:

	Pezetak
1996an sortu eta 1997ko aurrekontuak jasoak	
Ur eta zarama tasak	8.073.035
1997an sortu eta 1998ko aurrekontuak jasoak	
Ur eta zarama tasak	8.945.653
Tasak eta bestelako dirusarrerak atalean jaso diren zeharkako zergak	9.634.906
Tasak eta bestelako dirusarrerak atalean jaso diren kapital transferentziak	453.720

Zerga-dirusarreretatik etorritako zenbateko batzuk, itxitako ekitaldien erresultetan ageri dira. Azterketa egin eta ondorio bat atera dugu: aipatu kopuruaren zati bat, 2.407.181 pezeta, ezin dela kobratu, aspaldikoa delako.

Kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilizaturiko kopuruak aztertu ondoren, hauxe gomen datzen dugu:

- *Udalak biltzen dituen tasei dagozkien zerga-ordenantzak onestea.*

- *Zerga-errolak onestea eta onespina agirietan jasotzea.*

- *Agente betearazleari dagokion fidantza edo abala eskatzea.*

- *Erroldeen eta errezibuen laburpenen arteko berdinkatzeak egitea, izan daitezkeen aldeak igarri eta aztertzeke.*

- *Tasak kobratzeko irekita dauden taloitegien erregistro-liburua egitea, aurrekontua betetzeko oinarrietan adierazi bezala. Orobat, aipatu taloitegien errezibuak aurretik zenbakitzea, eta aipatu dirusarrerak erregistratzeko aldizkakotasun finkoa ezartzea.*

- *EIOZeko tasa sortuak zehaztuko dituen laburpena egitea, eta baita karga-tasa ezarriko zaion betetze-aurrekontua ere.**

- *Osoko Bilkurak tasa guztietarako erabaki dituen igoerak zorrotz aplikatzea.*

- *Sortzapenaren printzipioa zorrotz aplikatzea zergak kontabilizatzean. Dirusarrerak aurrekontuko kontusail ezberdinetan sartzeari, dirusarreraren izaerarekin bat.*

VI.4.8. Dirusarreraren ohiko transferentziak

Likidaturiko eskubideek 159.059.162 pezeta inguru egiten dute –dirusarrera guztien ehuneko 43–, eta hurrengo kontzeptuak jasotzen dira, funtsean: funtzionarioen bahituretxearen finantzaketa, toki ogasunen probintzia fondoan partehartzea eta Estatuko tributuetan partehartzea.

Dirusarrera-aurrekontuaren likidazioan, ohiko transferentziazat jo dira 33.266.029 pezeta egiten duten hainbat dirusarrera; horien izaerari begiratu gero, ordea, kapital transferentziazat hartu beharko liriteke.

VI.4.9. Inbertsio errealak besterentzea

Likidaturiko eskubideek 25.000.000 pezeta egiten dute –dirusarrera guztien ehuneko 7–, eta finkak besterentzea jaso dute.

Alor honetako kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko kopuruak aztertu ondoren, zera egiaztatu ahal izan dugu: 1997an, Udalak zuzenean besterendu duela lursail bat, 10.000.000 pezetatan, aurretik egindako enkante publikoa eman gabe geratu zelako. Izan ere, alokatzeko araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke zen lursail hori.

Udalak, beste alde batetik, 15.000.000 pezeta-ko dirusarrera erregistratu du 1997an; 1995ean saldutako lursail baten prezioaren zati bati zegokion, ordea, eta 45.593.700 pezeta egin du. 1998an erregistratuko du Udalak –dirusarreretan erregistratu ere– kobratzeke dagoen saldoa: 15.593.000 pezeta inguru.

VI.4.10. Diruzaintza

Alorra aztertu eta prozeduren akats batzuei antzeman diegu. Horiek zuzendu behar direla uste dugu, hurrengo gomendioekin bat:

- *Funtzionamendua araupetzeko arauak finkatu eta idaztea.*

- *Ordainketak eramailearentzako taloiekin ez egitea, ahal dela.*

- *Udalak finantza-entitate berean dituen kontu korronteen kopurua gutxitzea, jarraipena eta kontrola errazteke.*

- *Udalaren jabetzapeko kontu guztiak sartzeari kontabilitatean eta zenbaketa-aktan.*

- *Banku-berdinkatzeak formalki dokumentatzea.*

VI.4.11. Hirigintza

Udalak baditu udal arau subsidiarioak, eta katastroak etengabe eguneratzen dira.

Udalak ez du lurzorua udal ondarkerik eratu.

Lurzoruaren udal ondarea eratzea gomendatzen dugu.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean


Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

(*) (1998an aplikatu da).

**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN ETA AURRERAKINEN ZERRENDA,
1997ko ABENDUAREN 31n (pezetatan)**

Mailegua/aurrerakina	Zertarako	Hasierako zenbatekoa	Korritu %	Año de Epemuga	7/12/31n dagoen kapitala
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Lursailak erostea	120.000.000	5,257	2004	89.446.571
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Futbol zelaia	25.000.000	4,85	2011	23.318.007
Banesto	Hainbat kreditu berfinantzatzea	89.042.118	Mibor + 0,75	2003	64.431.086
Riegos de Navarra, SA,	Ureztaketak	9.393.145	7,00	2014	8.872.964
Nafarroako Gobernua	JEZen kudeaketan atzeratzeagatiko aurrerakina	7.329.342	0,00	1998	7.329.342
Guztira		250.764.605			193.397.970

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1997ko ABENDUAREN 31n



AL: aldi baterako langilea
B: bitartekoa
F: funtzionarioa
LF: langile finkoa
ZE: zerbitzu errentamendua

CASCANTEKO UDALAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTU DIZKION ALEGAZIOAK.

Ondoren aipatuko ditugu Cascanteko Udalak Ganbara honi bidali dizkion alegazioak.

Hala ere, hurrengo ere aipatu behar da:

a) Alegazioetan azaldu diren hainbat alderdi txostenaren barruan sartu dira; ondorioz, beraz, udalaren testutik kendu egin dira.

b) Aldi berean, ez dira kontuan hartu -eta eza-batu egin dira- Txostenaren ondorioak argi eta modu zuzenean aipatzen ez dituzten iruzkinak.

Alegazioak:

Lehena.- IV.4. idazatia. Finantza-egoera. Barne-kontrolako bideak indartu behar direla dio b) idazatiak, kontratazio, erosketa eta diruzaintza alorretan.

Kontratazio, erosketa eta diruzaintza alorretako barne-kontrolako bideak indartu behar direlako iruzkina ez zaigu errealistegia iruditzen.

Beste alde batetik, ez da zehatz-mehatz esaten zer erosketa edo kontratazio jotzen den txarizat, gaizki kudeatuztat, ekonomiaren aurkakotzat, kontrol biderik gabekotzat edo eraginkortasun ekonomiko edo administratiborik gabekotzat. Gure ustez, alderantzizkoa ateratzen da dagozkion espedienteetatik; izan ere, aurrekontu bat baino gehiago ageri da horietan, eta lege-aginduak betetzen direlako ere. Are gehiago, barne-kontrolaz ari garela esan beharra dago, ezen dezenteko dirutza egiten zuten hainbat udal kontratu birnegoziatu egin direla, hala nola katastroaren mantenimendua, obrak, lanbidedunen zerbitzuak, kredituak, udal aseguruak, lan-aholkularitza, kontadoreen mantinemendua eta beste batzuk.

Uste dugu, halaber, kontrol eta eraginkortasun bideen arazoa zaila dela aztertzen eta analizatzen, eta gaude ez ote den gehiegitxo izango erabateko gomendioak ematea, udalaren jardun osoa hiru astez bakarrik aztertu eta gero.

Udalaren kontrol-bideak hobe daitezkeen arren, egoki iruditzen zaigu Udalak dituen langileen kopurua eta prestakuntzari buruzko hausnarketak egitea, eta, ondorioz, toki administrazioak betidanik dituen mugen baitan kokatzea aipatu gomendioa; alegia, enpresa-irizpideak -hala nola, kalitatea, eraginkortasuna eta ekonomia- erabili ditugu ahaleginak bideratzeko, baina gure baliabideak mugatuak dira. Horren ondorioz, gehiegitxo iruditzen zaigu -eta errazegi, agian- kanpo-auditoretza batetik horrelakorik esatea.

Bigarrena.- VI.I. idazatia. Aipatu dutenaren arabera, 1997ko aurrekontuaren likidazioan eragiketa batzuk agertu dira azterketan, sortzapenaren irizpidea zorrotz aplikatuz gero likidazioa aldatuko zutenak.

1.- Dirrusareren aurrekontuko inputazio okerrei buruz, aurreko ekitaldietatik datozen dirusareren inputazio okerra aipatu du txostenak: 8.073.035 pezeta, alegia.

Ur eta zaramaren erroldetatiko 5.168.535 eta 2.904.500 pezetako kopuruetatik dator goian aipatu den zenbatekoa. Aipatu erroldetik 1996ko lauhilekoan egindako kontadore-irakurketei dagozkie, eta, Kontuen Ganbararen txostenaren arabera, aipatu ekitaldiari egotzi behar zaizkio. Oraingoan ere, sortzapenaren irizpidea aipatu du txostenak.

Hala ere, egoki deritzogu hurrengo irizpide edo hatsapenak aplikatzeari: kudeaketa jarraituarena, uniformitatearena eta garrantzi erlatiboarena. Zaramaren tasen kasuan, uraren errezioboarekin batera bidaltzen delako justifikatzen da. Pentsatzekoa denez, aurreko hiruhilekoari dagokion kontadore-irakurketa urtarrilaren lehen hamabostaldian egiten da, eskuz eta etxez etxe (ez baitugu irakurgailu elektronikorik); beraz, banan-banan informatizatu behar dira datuok, errolda egin, errezioboak jaulki eta alderatu: normalean, otsailera arte luzatzen dira zeregin horiek. Beraz, lojikoagoa da egungo egoera, non urteko lau hiruhileko egozten baitira, ekitaldiarekin guztiz bat ez datozen arren.

Beste alde batetik, kudeaketa jarraituaren hatsapenean oinarrituta, eta uniformitate hatsapenarekin bat eginda, uraren eta zaramaren zerbitzuak beti ematen direla suposatzen da, eta, ondorioz, halaxe kobratu behar direla, alegia, ekitaldi guztietan eta lau hiruhilekotan zatituta. Beraz, inongo aurrekontu-ekitalditan -berdin dio 1996, 1997 zein 1998an- ez da alde batera utzi ekitaldi bakoitzeko eragiketak jasotzearena, kopuruan izandako alde txikia gorabehera. Alde hori, gainera, garrantzi errelatiboaren hatsapena aplikatuz konpontzen da.

Egia esateko, auditore-taldeak zuzentzat jotzen duen inputazioak izundu egingo luke ekitaldiko aurrekontu-errealitatea, urte berean ur-zaramen bost hiruhileko kobratzea ekarriko lukeelako; zentzugabea da hori, egungo inputazioa orekatua eta lojiko den heinean.

2. 1997ko ekitaldiari ez zegozkion dirusareren inputazio okerrei bagagozkie, 5.933.028 eta 3.012.625 pezeta uraren eta zaramen laugarren

hiruhileko erroldeei dagokie. Arestian esandakora jotzen dugu hori zuzenetsi eta azaltzeko.

3.- 1997ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan sartu ez diren gastuak direla-eta, 27.951.416 pezeta aipatu dira.

* Horietatik 1.619.570 pezeta eskolako kiroldegiaren obra-ziurtagiriei dagokien BEZa dute xede; izan ere, ziurtagiri horiek 1997ko ekitaldiaren kontura onetsi eta ordaindu ziren. Harrigarria da zirriborroak egin duen azterketa, alegia, ABILen sartu izana egokitzen ez jotzea eta inbertsioaren balio handiagotzat jo behar dela.

Cascanteko Udalak, arazoa legearen ikuspuntutik aztertu ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ekonomi eta Ogasun Departamentuko BEZ Ataleko Buruari planteatu zion aukera bat: kirol arloko garbiketa, mantenimendu, kudeaketa, kontrol, segurtasun, antolaketa eta animazio zerbitzuen kudeaketa hirugarren bati ematea, dagokion lehiaketa publikoaren bidez. Lizarrako Udala erabiltzen ari da sistema hori, dagoeneko, eta esleipena hartu duen hirugarrenari BEZ eta guztiko fakturazioa egitea lortu du; esleipendunak, gero, instalazioak erabiltzen dituztenei fakturatzen die BEZ hori, eta Udalarai itzuli egiten zaio jasandako kopurua. Baiezko erantzuna eman ziguten, eta ez dugu ulertzen txostenaren kontrako iritzia.

Hala ere, gastuaren kontrol eta mugen adierazgarri, zuhurtziaren printzipioa erabili eta 1998ko aurrekontua hasierako superabitarekin onestea erabaki zen, superabit hori bete-betean egokituz ekitaldi horretan jasan beharreko BEZaren kopuruei. Hau da, uste dugu itzuli egingo dutela kiroldegia eraikitzean jasandako BEZari dagokion kopurua, eta horregatik sartu dugu ABILen; baina, aldi berean, erreserba egin dugu diruzaintzan, halakorik gertatzen ez bada.

* Eskola Kiroldegiaren obra-ziurtagiri batek, 1997ko abenduari zegokionak hain zuzen, 23.894.174 pezeta egin zuen. Hori dela-eta, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari egin genion kontsulta aipatu behar dugu: emandako erantzunaren arabera, obra-ziurtagiriei dagokien BEZaren kengarritasuna ez da halakotzat jotzen ordainketa egin arte; hori dela-eta, sortzapena ordainketan oinarritzen da. Beraz, ziurtagiria eta hari zegokion ordainagiria –1998ko data baitzeraman– benetan ordaindu arte atzeratu behar izan genuen gastuaren sortzapena, irizpide fiskal hutsei men eginez –izan ere, Foru Komunitate honetan gai horri buruz eskumena duen organoak eman baitzuten–, eta ez Udal honek hala nahi izan zuelako edo hala iritzi ziolako.

* Lurra erosteko asmoz, Nafarroako Aurrezki Kutxarekin hitzartutako kredituari dagozkion 2.437.672 pezeta ere hartu dira kontuan. Sortzapenaren irizpidea aplikatzea aipatzen du txostenak; Udalaren ustez, aldiz, garrantzi erlatiboaren hatsapena aplikatu behar da, kreditua ordaintzeko eguna eta ekitaldia ez baitatoz bat, muga-eguna urtarrilaren 4a delako. Kopuruaren aldeko diferentzia hutsaren hurrengo denez, ez da beharrezko hurrengo ekitaldian sortuko diren amortizazioa eta korrituak kalkulatzeko.

Hitzartutako maileguak hiruhilero amortizatzen direla uler daiteke, urtarrilaren 4ko muga-eguna baitute. Horregatik aplikatzen zaizkio 118 egun aurrekontu-ekitaldi bati eta 4 beste bati: ikus daitekeenez, kalkulu horrek ez du eraginik, zirikusia duten ekitaldien arteko aurrekontu-orekaren hatsapena errespetatu egiten denez, egin beharreko kalkuluen eragina deuseza baita.

4. Etorbizuneko ekitaldiei dagozkien gastu batzuk ageri dira: 2.714.601 pezeta. Aurreko lerroaldean aipatu kredituaren amortizazioari dagozkio; beraz, baliagarri bekigu han emandako justifikazioa, eta jo bedi errepikatutzat.

Hirugarrena.- VI.I idazatia. Gastuak eta diru-sarrerak dagozkien ataletan kontabilizatzea gomendatzen da, izaera ekonomikoren arabera.

Txostenaren zirriborroari agertu genion harridura bera berretsi beharrean gaude; izan ere, langile batzuen gizarte-segurantzaren kostua, inbertsioei aplikatu ordez, langileen kapituluari egotzi izana baino ez dute kritikatu.

Horren arrazoia da Gizarte Segurantzako TCak hogeitaz langile ingururentzat egiten direla, eta, ondorioz, eskuz egin beharko lirakeela kostuaren inputazioa, hileko kalkulua eta inbertsioari edo langileei dagozkien portzentaiaren estimazioa. Gehiegizkoa da hori, desbideraketarekin alderatuz gero, eta neurritz kanpoko, eskueran diren giza-baliabideak eta gizarte-aseguruei buruzko ezagupenak aintzat hartzen baditugu.

Aipatu salbuespen hori kenduta, gainerako kontabilitate idazpen guztiak behar bezala egiten dira, hau da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak, Nafarroako Gobernuak 1997ko azaroaren 10ean harturiko Erabakiak, gainerako lege-xedapen indarrekoek eta oinarri hauek ezarritakoaren arabera. 500/1990 Errege Dekretu Aurrekontuzkoa ere ordezko gisa erabiliko da. Astean behin edo birritan, Udaletxera etortzen den Toki Administrazioiko Departamentuko teknikariaren jarraibideak ere kontuan hartzen dira. Horretaz gain, galderak eta

zalantzak helarazten zaizkio Departamentuari, eta Kontabilitate Publikoa ezartzeko irizpideak zorrotz aplikatzen dira.

Kontuan hartuz gero bost mila kontabilitate-idazpen inguru egiten direla urtero –beste horrenbeste inputazio ekonomiko eta funtzionalekin–, guztiz lojiko da horietakoren bat gaizki egotea. Beraz, gehiegizko deritzogu iruzkinari, guztizko kopurua kontuan izanda.

Iruzkina gastuaren izaera ekonomikoa ere aipatzen duenez, kontuan izan behar da gastuaren izaera ekonomikoa zein funtzionala ez daudela arau bakar baten menpe, eta behin baino gehiagotan izaten direla interpretazioak eta Toki Administrazioiko Departamentuari galdetu beharra. Hortaz, irizpide bakar eta bateraturik ezean, ez zaigu ongi iruditzen irizpide-batasunik ezartzea, eta, horren ondorioz, kritika egitea.

Laugarrena.- VI.4.1. idazatia. Hauxe adierazi dute Aurrekontu eta kontabilitate arloetako kudeaketa-iruzkin eta -gomendioen izenburupean:

1.- Toki sektore publikoaren Kontabilitate Plan Orokorra ezartzen jarraitzea. 1998ko urtarrilaren 1ean hasi zen ezarpena –esana dago–, eta piskana-piskana ari gara ezarpenarekin, urtean behar. Badugu Toki Administrazioiko Departamentuaren aholkularitza, eta Udaleko langileak ere prestakuntza jasotzen ari dira. Ondorioz, gomendia alferri da, Plan horren ezarpena burutzeko erabakiak ez duelako atzera itzultzerik. Berrikitan indarrean sartu den edozein lege aplikatzen jarraitzeko gomendioaren parekoan izango litzateke.

Orobat udal ondarearen inbentarioa egiteko gomendioari buruz; izan ere, ekitaldi honen bukaera aldera egitekoa da, Toki Administrazioiko Departamentuak aurreikusitako planen arabera.

2.- “Betetze-oinarriak osatu egin behar dira administrazioiko eta kontabilitateko oinarriko prozedurak jasoko dituen eskuliburu batekin. Hurrengoak finkatuko ditu, funtsean:

a) Prozedura bakoitzari ezarri beharreko kontabilitate-irizpideak.

b) Administrazio-zirkuituak.”

Benetan bitxia gomendia, ez baitugu uste Udal honi dagokion lantegia denik “oinarriko kontzeptuei” buruzko eskuliburu osatzea: txostenaren zirriborroari egindako iruzkinak berretsi beharrean gaude. Legeek ezarri dituzte irizpideak eta gutxi dute oinarriko kontzeptutik; alderantziz, deabruzko zailtasuna dute: Toki Administrazioiko Departamentuari egin behar zaizkion kontsulten ugariak hala frogatzen du... Lankidetzak Ekonomi-

koaren Atalak berak ere ez du irizpide argirik. Badirudi ahaztu egiten dutela udal batentzat zein zaila den Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra ezartzea, eta burutu behar den ahalegina.

3. Aldizkako berdinkatzeak eta egiaztapenak, itxiera-eragiketak eta saldoen azterketa egiteaz denaz bezainbatean, aldiro-aldiro egiten direla esan behar, ohi den bezala. Gastuen eta dirusarrerren kontabilizazioa ez da aste beteko atzerapenera iristen.

4. Zuzenesteko eta baimena emateko baldintzak: badaude, egon. Aurrekontuak betetzeko oinarrietara jotzen dugu: gastu guztiek behar dute justifikazioa eta Alkatearen eta Idazkari Kontuhartzailearen baimen mankomunatuak.

Bosgarrena.- VI.4.3. idazatia. Langileen ordainketak.

1.- Behin-behineko txostenean asteriskoa jarri zaien gomendioak aplikatu egiten dira. Horietako batzuk, auditoretzaren zelai-lana egin zen garaian ere.

2.- Udal langile bakoitzarentzako administrazio-espeditante eguneratua eduki. Berrito diogu espeditanteak badirela, izan. Eta ez dugu dokumentuak falta direnik nabari. Gomendaturikoen artetik, betetzen ez den gauza bakarria langile bakoitzak bere famili eta pertsona egoerei buruz egin behar duen zinpeko aitortza da, ordainketa- edo lege-alorrean eragiten diona.

3.- Langile bakoitzaren zereginak idatziz jasotzeari buruzkoan, berrito diogu aitortzen izugarri polita dela hatsapenen ikuspuntutik, baina ezin dela aplikatu: horren sinple. Kontuen Ganbara horrek edo auditoretza taldeak ba al du Udaleko langile guztiek burutzen dituzten ohiko edo aparteko ehundaka zereginen berri? Jabetu al dira zerrendak zehatz-mehatza beharko lukeela, beraz, amaiezina? Jabetu al da udal txikietan langile guztiek burutu behar dituztela zeregin guztiak, beraien eginkizun zehatz izan zein ez? Benetan uste dugu gomendio horrek kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren azterketa nabarmen gaitzen duela, eta hori aplikatu behar izanez gero, zereginak esleitzeko lanpostu bat atera beharko litzatekeela.

4.- Indarrean dagoen zerga-legedia betetzea, alegia, ordainketa orori PFEZa atxiki behar zaiola. Onartuta dago gomendia; izan ere, Udaltzaingoren eta Obra Brigadaren aparteko orduei atxiki penik egiten ez zitzaienez, egiten hasi dira 1998ko ekainean. Edonola ere, gomendia bete dugu, eta hala egiaztatzea daiteke.

Seigarrena.- VI.4.6. idazatia. Finantza-pasiboen aldaketak.

Iruzkinei buruzko txosten honetako bigarren puntuan aipatuta dagoen eragiketen-mozketa aipatu du berriz ere.

Zazpigarrena.- VI.4.7. Tributu-dirusarrerak.

* Erroldeen eta errezibuen laburpenen arteko berdinkatzeak egitea gomendatzen da, izan daitezkeen aldeak igarri eta aztertzeko. Berritua diogu: tributu-kudeaketa eta kontabilitate-programa elkarri egokitu zaizkio, programa informatikoa eta banka elektronikoa esker. Beraz, aldi-aldian konprobatu eta kontrolatzen dira ordainagiriak; berdinkatzea ere, eskueran diren baliabideekin egiten da. Baina, berritua diogu, ezinezkoa da urtero ematen diren milaka ordainagiriak eroldeekin aurretik adostu.

* Osoko Bilkurak erabaki dituen igotzak zorrotz aplikatzeaz denaz bezainbatean, adibide konkretu bat eskatu genuen zirraborroari eginiko alegazioetan. Halako azalpenik eman ez eta eutsi egin diote gomendioari. Udal honek, ordea, aipatu igotzak zorrotz aplikatzen direla uste du.

* Azkenik, kobratzeko dauden kopuruen kobragarritasuna aldiro aztertzeaz hauxe esan behar dugu: zordun berankorren, kobratzeko zalantza daudenen eta kobraezinen kontrol eta azterketa paregabea egiten dela. Berankeria-maila apal-apala da, eta etengabe ari gara lanean: berankorrei errekerimendua egiten, agente betearazlea bidaltzen eta itzultako ordainagiriak arazten, bide administratiboan edo exekutiboan kobratzeko.

* Agente betearazlearen fidantza dela-eta, agentearen bidez egiten diren dirusarrerak eta kobraketa guztiak banku-kontu batean egin behar dira, eta Udalak baino ez du kontu hori erabiltzeko baimena. Horregatik, ez dugu ulertzen fidantzari buruzko gomendioa; izan ere, agentearekin bilerak izaten dira, eta ia-ia astero ematen du bere zereginaren berri: ezin da bestelako bermerik eskatu, arriskua edo kalteak gertagaitzak direlako.

* Berriz ere gomendatu dute sortzapenaren irizpidea zorrotz erabiltzea. Aurrerago mintzatuko gara horretaz.

Zortzigarrena.- VI.4.10. idazatia.

* Funtzionamendua araupetzeko arauak finkatu eta idaztea gomendatu dute. Bosgarren puntuan emandako argudioak errepikatu beharrean gaude; alegia, betetze-oinarriak izatea eta aplikatzea nahikoa dela, eta gomendioaren xede den zeregina ez dagokiola, inondik inora, Udal honi, ez besteri ere.

* Kontu korronteen kopurua gutxitzeaz, zirraborroari aurkeztu genion argudioa berretsi beharrean gaude; alegia, sistema horrekin kontrol handiagoa eta hobe egiten dela.

* Hauxe ere gomendatu dute: Udalaren jabetzapeko kontu guztiak sartzea kontabilitatean eta zenbaketa-aktan. Ez dugu iruzkina ulertzen, kontu guztiak barruan daude-eta.

Bederatzigarrena.- Sortzapenaren irizpideari buruzko alegazioa.

Txostenak behin eta berriz aipatzen du "sortzapen irizpidea zorrotz aplikatzea". Gure aldetik, txostenaren zirraborroari aurkeztu genion argudioa berretsi beharrean gaude. Idatziz eman genituen alegazio haietan esan genuenez, Estatuko zein Foru Komunitateko aurrekontu- eta kontabilitate-arauek hainbat kontabilitate-hatsapen jarri dituzte Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra oinarritzeko. Hona:

- Erosketa-prezioaren hatsapena.
- Jarraitasun hatsapena.
- Sortzapenaren hatsapena.
- Kudeaketa jarraituaren hatsapena.
- Zuhurtziaren hatsapena.
- Erregistroaren hatsapena.
- Gastuak eta dirusarrerak elkarri egokitzearen hatsapena.
- Ez konpentsatzeko hatsapena.
- Garrantzi erlatiboaren hatsapena.

Sortzapenaren hatsapena ez da irizpide bakar, oso eta nagusizat hartu behar; aitzitik, besteekin batera ulertu behar da, eta benetako egoera ere kontuan hartu. Uste dugu txostena neurritik ateratzen dela, eta kontraesanean erortzen dela aplikazio zorrotza eskatzen duenean. Aplikazio zorrotz horrek itzuri eta muzin egiten dio legearen izpirituari eta indarreko legediari, zeinak inongo lehenetasun, hierarkia edo aplikazio eskusiborik ematen ez dion sortzapen hatsapenari; aitzitik, goian aipaturikoekin bateratzen du.

Izan ere, hatsapenak bata bestearekin ulertzeko defentsaren ondorio gisa, hauxe esan daiteke: txostenak gastuen eta dirusarreraren inputazioei buruz ematen dituen gomendioetako batek ere ez duela aurrekontu-oreka aldatzen, eta inputaziotik inola ere ez dela ateratzen aurrekontu-errealitatea aldatzeko asmorik ez saiorik, edo egoera ekonomiko eta finantzarioa faltsutzekorik; aitzitik, inputazioak elkarrekin konpentsatzen dira, eta ez da

txostenean hitzez hitz aipatzen den "Aurrekontu-betetzearen zenbakien distortsio"rik.

Sortzapenaren hatsapena printzipio bakartzat eta zorrotz ez aplikatzeko eman argudioari egoki deritzogunez, txostenean zehar hatsapen horri buruz egiten diren aipamen guztiak kentzea eskatzen dugu, eta baita inputazio okertzat jotakoak ezabatzea ere. Horri buruz, gehitu beharra dago Toki Administrazioako Departamentuak ezarri irizpidea erabiltzen dela, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra ezartzeko aholkularitza ematen ari diren teknikarien berbera, alegia.

Hamargarrena.- Iruzkina orokorra.

1.- Alegaziotan aipatu ez ditugun gomendio guztiak ongi iruditzen zaizkigu. Eskertu egiten ditugu, eskertu ere, arauak behar bezala aplikatu eta udal kudeaketa hobetzeko bultzada ematen duten heinean.

2.- Erasota geratu den bezala, Cascanteko Udalak bata bestearen ondorengo hiru aurrekontu-ziklotan dihardu ahalegin handitan, zertan-eta egoera ekonomiko eta finantzarioa, kontrola eta kudeaketa hobetzen, informazio sistemak berri-tzen, legeak behar bezala aplikatzen, kontratazioan eta kontabilitate eta aurrekontu alorretan, batez ere. Egoera nabarmen hobetu dela aitortu behar dugu; egiteko lana geratzen dela onartzen dugu, hala ere.

Hori dela-eta, 1997ko urtarrilaren 1etik –hau da, auditatu den aurreko ekitaldi guztia– gaur egunera bitartean gomendio asko eta asko onetsi, eta hainbat akats zuzendu edo indarreko legearekin bateratu dira. Oro har, halaxe adierazi eta frogatu diogu auditoreen taldeari.

Propio adierazi dugu, behin eta berriz, harrিতa geundela eta ez genuela ulertzen; izan ere, zirriborroari egin alegazio haietan ere ezegokitzat jo genituen iruzkin eta gomendio asko zuzenduta zeudelakoan geunden: behin-behineko zirribor-roan sartu dituzte, hala ere. Horiek egiaztatu eta zuzentzea eskatzen dugu, arren, badirudielako batzuetan zirriborra aztertu ere egin ez dela, aurretik egin genituen alegazioak aintzat hartze aldera.

4.- Alegazioetako batzuetan errepikatu dugu-nez, erabili ditugun interpretazio eta irizpide batzuk ez dira Udal honek bere kasa eta pozez kantari hartutako jarrera baten ondorio, Toki Administrazioako Departamentuak edo Ekonomi eta Ogasunekoak emandako aholkuaren edo formula-zioaren fruitu baizik.

Hala erasota gera dadin, alegazio-idazki hau eman dut, eta edukia aintzat har dezatela eskatzen dut, behin betiko txostena zuzentze aldera.

Cascanten, 1998ko irailaren 29an

Alkateak: José Gómara Ruiz

Idazkari Kontuhartzaileak: Santiago Lesmes Zabalegui

KONTUEN GANBARAREN ERANTZUNAK, CASCANTEKO UDALAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTU DIZKION ALEGAZIOEI BURUZKOAK.

Cascanteko Udalak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak aztertu ondoren, Lehendakaritza honek behin betikotzat jo du txostena, hurrengo zehaztasunekin:

- Berriro ere zehaztu behar da txostena 1997ko ekitaldiari buruzkoa baino ez dela. Hortaz, bere baitan duen ondorio eta gomendio oro ekitaldi horretan indarrean zeuden gaiei buruzkoa da; hala ere, txostenaren testuan adierazi bezala, hainbat kudeaketa-neurri abiarazi dira 1998an –Udalak hala gaztigatu digu, behintzat–, eta ñabardura horiek jasota daude testuan.

Fiskalizazio txostenek aldi jakin eta zehatz bat hartu behar dute; bestela, ezin izango genituzke sekula bukatu, kudeatzaileak gomendioak aplikatzeko duen abildadearen menpe izango ginatke-elako.

- Sortzapenaren hatsapenez denaz bezainba-tean, hauxe zioen behin-behineko txostenak:

- IV.1. idazatia. " ... ez da sortzapenaren irizpide-a zorrotz aplikatu. Aipatu alderdi horiek, hala ere, ez dute funtsezko eraginik udalak ekitaldi horretan burutu duen jardueraren isla orokorrean."

- VI.1. idazatia. "Azterketa egiten ari ginela, eragiketa batzuk agertu zaizkigu 1997ko aurre-kontuaren likidazioan. Eragiketa horiek, sortzapen irizpidea zorrotz aplikatuz gero, likidazioa aldatuko zuketean ondorengo kopuruen arabera". Baita ere, "Hala ere, esan beharra dago Udalaren irizpideak bat datozela aurreko ekitaldietakoekin".

Iruzkinton aurrean, harritzeko modukoak dira Udalak aurkeztu dituen alegazioen nondik-nor-koa, Ganbarak hauxe besterik ez baitu azaldu: sortzapenaren hatsapena zorrotz eta bere puruta-sunean aplikatzearen ondorioak.

Hala ere, azpimarratu beharra dago kontabili-tate-arautegi publikoak horri buruz ezarri duen muga bakarra: kontabilitate-hatsapenak ezartzetik ezin daitekeela lege-hausterik atera. Ganbara

honen iruzkinetan zorrotz errespetatu dugu alde hori.

Azkenik, ez dakigu zer arautan oinarritzen den Udala zerga-irizpideak aurrekontu eta kontabilitatekoei gailentzen zaizkiola esateko.

- Aurrekontu-inputazio okerrei bagagozkie, txostenaren testua azaletik irakurri dutela atera daiteke alegazioen edukitik; izan ere, txostenak badakar gai hori, hurrengo idaztietan ekarri ere:

- Langileen gastuak
- Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea
- Tributu-dirusarrerak
- Transferentzien ondoriozko dirusarrerak

Arinkeria da, beraz, iruzkina langileen gastuetara mugatzea.

- Ganbara hau harrituta dago, Udalak hitzez hitz esan duelako Nafarroako Gobernuaren jarduketan zain daudela udal ondarearen inbentarioa egiteko.

Udal ondasun publikoen defentsa Udalaren eskumen eta betebeharrak saihestezina da: Udalak ezin du bere jarduera eza zuritu beste administrazio publikoen jardute edo ez jardutearekin.

- Prozedurei buruzko eskuliburua egin, zeregina esleitu eta barne-kontrolako mekanismoak indartzeaz denaz bezainbatean, Ganbara honen helburua zera da: Udalak –gainerako entitate publikoak bezala– udal baliabide publikoen kudeaketa hobereana erdiestea. Testuinguru horretan ulertu behar dira, beraz, gomendiook; hau da, Udalak, epe ertainean eta luzean, bere esku izan ditzala aipatu “kudeaketa hobereana” bermatzeko tresnak eta giza-baliabideak.

Gogora dezagun, berriz ere, behin-behineko txostenaren testuak espresuki aipatzen duela –Iritzari buruzko idazatian– indartze hori “eskura dituen giza- eta gauza-baliabideak kontuan hartuz” egin behar dela.

Azkenik, lojkoa –eta beraz, eskatzeko moduko– iruditzen zaigu urtero 300 milioi pezetatik gora kudeatzen duen erakunde publiko batek gomendio horiek epe luzean betetzea. Hori guztia, noski, Udalaren arabera azken hiru urteotan dararmaten hobekuntza-bidearen baitan.

- Osoko Bilkurak onetsitako igoerak zorrotz aplikatzeaz –halaxe esan baikenuen–, hurrengoak azpimarratuko ditugu erabilitako laginketatik:

- Hilerriko tasak: ez ziren 1997ko prezioak, aurreko ekitaldiari zegozkionak baizik.

- Uraren tasa: ehuneko 10eko igoera onetsi zutenez, metro kubikoko 99 pta. hartu behar zen prezioztat. 100 pta. jarri zituzten, ordea, eta benetakoko igoera ehuneko 11,1 izan zen.

- EIOZ: 1996ko KPIren arabera igoera. Ehuneko 3,6 izan zen indize hori 1996an; Udalak, ordea, ehuneko 4 aplikatu zuen.

- Ez dugu “kobratzeko dauden kopuruen kobragarritasuna aldiro aztertzea”ri buruzko alegazioa ulertzen, behin-behineko txostenak ez baitu ezer esaten horri buruz.

- Harritu egiten gaitu, berriz diogu, Udalaren iruzkina agente betereazleari fidantzarik ez eskatzeaz.

Ondare publikoen zaintzak –diruaz ari gara orain– zera eskatzen die administrazio publikoei: indarreko legediak ezarritako neurri oro erabiltzea diru publikoak babestu, zaindu eta begiratzeko. Ez dezagun ondore persuasiboa ahaztu.

- Kontabilitatean eta zenbaketa-aktan sartu gabeko kontu korrontek aipatuko ditugu: Udalari jakinarazi genionez, lau kontu korronteez ari gara –Nafarroako Aurrezki Kutxako bi, eta Nafarroako Rural Kutxako beste bi–, hasierako guztizko saldoa 452.311 pta. zen, eta bukaerakoa, 30.231 pta.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Lehendakariak: Luis Muñoz Garde

Fustiñanako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Fustiñanako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Fustiñanako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (19. or.).
- II. Helburua (19. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (19. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
- V. Finantza-egoerako orriak: 1997ko aurrekontuaren betetzea (20. or.).
- VI. Azterketa, ondorioak eta gomendioak (22. or.).

Eranskinak:

1. Finantza-pasiboen zerrenda (28. or.).
2. Organigrama (28. or.).

I. SARRERA

Fustiñanako Udala Tuterako merindadean dago eta zuzenbidezko 2.295 biztanle ditu, 1996ko maiatzaren 1eko azken erroldaren arabera.

Udalak ez du erakunde autonomo edo enpresa publikorik, eta hurrengo mankomunitate, partzuego eta talde edo elkarteetan sarturik dago:

- Hondakin solidoen Erriberako mankomunitatea.
- Buñuelgo oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.
- "Navarra Sur" kirol mankomunitatea
- Eder turismo partzuegoa

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Admi-

nistrazioko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Fustiñanako Udalaren (hemendik aurrera, Udala) 1997ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontu betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

- a) Fustiñanako Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.
- b) 1997ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, ezartzeko diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.
- d) Udalaren finantza-egoera 1997ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Fustiñanako Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1997ko ekitaldiari dagokiona.

Aurrekontu-kontabilitatean baino ez du jasotzen Udalak bere eragiketak. Ondorioz, dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari lotu zaio lana, eta antolamendu, kontabilitate eta barne kontrolerako alde batzuk aztertu dira.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik Udalari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoaren arabera.

Udalak ezarrita duen kontabilitate-sistemaren ondorio dira gure lanari eragin dioten mugak; izan ere, aurrekontuaren betetzea jarraitu besterik ez

du egiten sistemak, eta ez du ekitaldi bakoitzaren amaierako ondare-egoera islatzeko kontabilitate orokorrik.

Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu txostenean, eta bi eranskin ere jarri ditugu: bata 1997ko abenduaren 31n zegoen finantza-pasiboen zerrendareki (1. eranskina), eta bestea entitatearen organigramarekin (2. eranskina).

Zelaiko lana 1998ko maiatz-ekainetan egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Fustiñanako Udaleko langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egin duelako.

IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Fustiñanako Udalaren 1997ko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

IV.1. AURREKONTUAREN GARAPENARI ETA BURUTZEARI DAGOKIENEAN.

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak arrazoiz islatzen ditu Udalak fiskalizatutako ekitaldian burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aurrekontu-egozpen oker batzuk daude, eta 1997ko ekitaldiko eragiketen mozketak ez da egokia izan. Aipatu alderdi horiek, hala ere, ez dute funtsezko eraginik udalak ekitaldi horretan burutu duen jardueraren isla orokorrean.

IV. 2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1992tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

IV.1.3. LEGEZKOTASUNA

Fustiñanako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, nahiz eta indarreko arauen hausteei antzeman zaien; txosten honetan zehar iruzkinduko dira haiek.

IV.1.4. FINANTZA-EGOERA

Fustiñanako Udalak 1997ko abenduaren 31n duen egoera ekonomiko eta finantzarioak bide emanen luke, hasieran behintzat, etorkizuneko konpromisoei aurre egiteko, aurrezki positiboak baititu, zorpetze-mugatik beheiti dagoen zorpetze-mailarekin batera.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, Udalak landu duen aurrekontu-informazioak ekitaldiko gastu-dirusarrerak arrazoiz islatzen dituen arren, hauxe adierazi behar dugu:

- Udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

- a) Toki Sektore Publikoari ezar dakioken Kontabilitate Plan Orokorra ezartzen jarraitu, udalaren jarduerari buruzko informazioa baterabiltzeko tresna gisa.

- b) Barne-kontroleko bideak indartu, kontratazio, erosketa eta diruzaintza alorretan, batez ere.

- Finantzaketaren ikuspuntutik, aurrezki garbi positiboa erakusten du, eta horrek bide emanen dio hurrengo ekitaldietako konpromisoei aurre egiteko.

- Azkenik, epe ertaineko inbertsioei lehentasuna eman beharko lieke udalak, hauexek kontuan hartuz: bete nahi diren helburuak, inbertsioen kostua eta finantzaketa-beharrizanak.

V. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK: 1997ko AURREKONTUAREN BETETZEA

Jarraian, Fustiñanako Udalaren finantza-egoerako orriak aurkeztuko ditugu, 1997ko ekitaldiari dagozkionak, hain zuzen:

Fustiñanako Udala
1997ko ekitaldiko gastu-aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Likidaturiko betebeharrak	Likidaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea %	Aitorturiko gutzizkoaren gaineko %
Itxitako ekitaldien erresultak	0	-	8.300.439	8.300.439	8.300.439	8.063.731	236.708	100	3
Langileen ordainketak	1	53.205.323	-	53.205.323	50.244.412	49.660.315	584.097	94	19
Ohiko ondasun eta zerb. erostea	2	62.891.614	8.553.809	71.445.423	66.304.998	59.136.474	7.168.524	93	26
Korrituak	3	8.262.781	-	8.262.781	7.701.665	7.653.935	47.730	93	3
Ohiko transferentziak	4	24.527.992	821.592	25.349.584	23.620.090	21.924.695	1.695.395	93	9
Inbertsio errealak	6	79.711.440	10.333.122	90.044.562	71.258.584	51.046.448	20.212.136	79	27
Kapital transferentziak	7	-	693.614	693.614	693.614	693.614	-	100	-
Finantza-pasiboan aldaketa	9	12.004.305	20.067.566	32.071.871	32.071.871*	30.990.805	1.081.066	100	13
Guztira		240.603.455	48.770.142	289.373.597	260.195.673	229.170.017	31.025.656	90	100

* Diruzaintzako mailegu bat ezabatzeko 20 milioi ere sartu dira.

1997ko ekitaldiko dirusarrera-aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Likidaturiko eskubideak	Likidaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea %	Aitorturiko gutzizkoaren gaineko %
Itxitako ekitaldien erresultak	0	-	30.836.803	30.836.803	27.589.946	10.824.477	16.765.469	89	10
Zuzeneko zergak	1	24.957.075	-	24.957.075	24.960.429	23.784.211	1.176.218	100	9
Zeharkako zergak	2	13.600.000	-	13.600.000	13.241.791	12.837.981	403.810	97	5
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	50.916.499	-	50.916.499	45.970.087	44.329.733	1.640.354	90	16
Ohiko transferentziak	4	72.362.058	-	72.362.058	73.638.720	72.833.340	805.380	102	26
Ondare dirusarrerak	5	19.200.000	-	19.200.000	18.828.461	15.857.563	2.970.898	98	6
Inbertsio errealak besterentzea	6	2.500.000	19.987.200	22.487.200	25.939.419	25.939.419	-	115	9
Kapital transferentziak	7	43.523.834	1.810.200	45.334.034	39.818.687	30.831.812	8.986.875	88	14
Finantza-pasiboan aldaketa	9	13.543.989	3.500.000	17.043.989	16.500.000	16.500.000	-	97	5
Guztira		240.603.455	11.151.630	419.225.938	369.139.213	321.820.510	32.749.004	97	100

1997ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera

	Pezetak
Kobratzeke dauden aitorturiko eskubideak: indarreko aurrekontua	15.983.535
Kobratzeke dauden aitorturiko eskubideak: itxitako aurrekontuak	16.765.469
Aurrekontuz kanpoko eskubideak (ABIL)	–
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(3.039.381)
Ordaintzeke dauden aitorturiko betebeharrak: indarreko aurrekontua	(30.788.948)
Ordaintzeke dauden aitorturiko betebeharrak: itxitako aurrekontuak	(236.708)
Aurrekontuz kanpoko betebeharrak (ABIL)	(9.519.424)
Finantza-kontuen saldoa	34.087.943
Guztira	23.252.486

Iturria: Fustiñanako Udala

VI. AZTERKETA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian, Udaleko antolamendua eta barne-kontrolerako sistema hobetzeko eta, horrekin, kudeaketa hobetzea lortzeko egokitzat jotzen diren ondorio eta gomendio orokorren berri emanen dugu.

VI.1. AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• “Aitorturiko betebeharrak” -aurreko ekitaldietako erresultak kenduz gero- 252 milioi pezeta egiten dute, gutxi gorabehera, eta ehuneko 90eko betetze-maila.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

	Portzentaia
Funtzionamendukoak	55
Inbertsiokoak	29
Finantza-zamakoak	16
Guztira	100

Ageri denez, funtzionamendu gastuak dira elementu nagusia -langileak, ondasunak erostea eta ohiko transferentziak-; inbertsioek, aldiz, ehuneko 29 egiten dute. Finantza-zama esanguratsua da; izan ere, 20 milioi egiten zuen diruzaintza-mailegua deuseztu eta aurrekontuan jaso da, eragiketa horrek aurrekontuz besteko izaera duen arren.

• “Aitorturiko eskubideek” -aurreko ekitaldietako erresultak kenduz gero- 259 milioi pezeta egiten dute, gutxi gorabehera, eta ehuneko 97ko betetze-maila. Hona osaketa, portzentaien arabera:

	Portzentaia
Tributuzkoak	33
Transferentziakoak	44
Ondarekoak	17
Finantzakoak	6
Guztira	100

Ikusten denez, 1997ko aurrekontuaren finantza-iturri nagusia transferentziak dira, hala ohikoak, nola kapitalekoak; ondare izaerako dirusarrerak, ordea, ehuneko 33 dira.

1997ko betetzearen egoerak 26 milioi pezeta-ko aurrekontu superabita erakusten du, aitorturiko eskubide eta betebeharren arteko aldearen ondorioz.

1997ko abenduaren 31n, ordaintzeke dauden kopuruek, gastuen erresultek, 31 milioi pezeta egiten dute, eta oraingo ekitalditik heldu dira guztiak. Kapituluak, inbertsio gastuen erresultei buruzkoak ehuneko 65 dira.

Kobratzeke dagoen kopuruak, dirusarreraren erresultek, 33 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 17 milioi aurreko ekitaldietatik heldu dira. Izaeraren arabera, ehuneko 46 tributu-zorrak dira, eta gainerakoa, transferentzien eta ondare-dirusarreraren ondorio dira.

Azterketa egiten ari ginela, agerian geratu da 1997ko aurrekontuaren likidazioa aldatu beharra izan zitekeela, hurrengo kopuruen arabera:

a) Aurreko ekitaldietako dirusarrerara batzuk jaso dira, eta, ondorioz, 1997ko aurrekontuaren likidazioak dirusarrerara gehiago ditu: 4.675.283 pezeta, gutxi gorabehera.

b) 1997ko ekitaldian sortu eta aipatu urteko likidazioan sartu ez diren gastu eta dirusarrerak bagagozkie, aurrekontuak 2.607.246 eta 491.272 pezeta gehiago beharko lituzke, hurrenez hurren.

Aurreko lerroaldean arabera, hona gomendioak:

- *Gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-kontabilizazioa sortzapenaren arabera egitea, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, eta kredituen izaera mugatzailea errespetatzeko. Aurrekontu-aldaketak erabili, hala behar izanez gero.*

- *Gastuak eta dirusarrerak dagozkien ataletan kontabilizatzeari, izaera ekonomikoaren arabera. Aurrekontuaren betetzearen zifren distortsioa saihestuko da horrela.*

VI.2. 1997ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, Udalak aurkeztu dituen 1997ko ⁽¹⁾ eta 1996ko aurrekontu-betetzeetatik abiatuta:

Ratio eta magnitudeak	Milioi pezetatan	
	1997	1996
Superabita	26	23
Aurrezpen gordina (1)	36	27
Aurrezpen garbia (2)	17	6

	Pezetak	
	1997	1996
Tributu-dirusarrerak biztanleko (3)	36.676	30.519
Per capita inbertsioak	31.049	13.984
Finantza-zama biztanleko	17.331	8.801
Funtzionamendu gastuak biztanleko	61.076	53.304

	Portzentaia	
	1997	1996
Zorpetze maila (4)	11	14
Zorpetze muga (5)	21	18

(1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarrerak hartu ditugu dirusarreraren 1. eta 5. kapituluaren bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.

(2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluaren batuketak.

(3) Tributu-dirusarrerak / zuzenbideko biztanleak: Tributu-dirusarrerak hartu dira dirusarreretako 1, 2 eta 3. kapituluak.

(4) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100

(5) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100

Aurreko ratio eta magnitudeak aztertu eta ondorio hauek atera ditugu. Kontuan izan behar da 1996ko datuak ikuskatu gabe daudela:

- Biztanleko tributu-dirusarrerak eta funtzionamendu-gastuek gora egin dute, 1996koekin alderatuz gero: ehuneko 20 eta ehuneko 15, hurrenez hurren. Udalak aurkeztu dituen bi magnitude horiek, dena den, Nafarroako udaletakoan 1996ko ekitaldiko batez bestekoak baino apala-goak dira: 43.629 eta 65.156 pezeta, hurrenez hurren. Edonola ere, konparazio horietan kontuan izan beharko lirakeke elkartearen bidez -mankomunitatearen bidez, funtsean- ematen diren zerbitzuen eragina.

Tributu-dirusarreraren hazkundea hurrengoek zor zaie, funtsean: hornidura-tasaren gehikuntzari, eta 1996ko ekitaldiari dagozkion herrilur-dirusarrerak - 3.695.567 pezeta- 1997ko aurrekontuaren betetzean sartu izanari.

- Per capita inbertsioak nabarmen igo dira 1997ko ekitaldian, urte horretan obrak egin direlako: hornidura-sarea eta argiteri publikoa berritzeko obraren 2. fasea. Bi obra horien lehen fasea 1994an egin zen.

- 1997ko zorpetze-indizea 1996koaren antzekoa da. Hauxe ere azpimarratuko dugu:

a) Lehen eranskinetik ateratzen denez, maileguak direla-eta hartu den zorrak 113.287.883 pezeta egiten du 1997ko abenduaren 31n.

b) Zorparen amortizazioaren kapituluak 20 milioi hartu ditu, 1996an emandako diruzaintza-mailegu bati dagozkionak.

c) Udalak izenpetu dituen maileguen epemugak hurrengoak dira 1997ko abenduaren 31n:

	Pezetak
1998	12.162.066
1999	12.238.313
2000	12.319.901
2001	11.472.069
2002 eta hurrengoak	65.095.534
Guztira	113.287.883

(1) Diruzaintzako maileguaren deusezteka kanpoan utzi da.

Laburbilduz, uste dugu Udalaren egoerak ikusitako joerei eusten badie, zorren epemuga kontuan hartuta, Udalak aurre egin ahal izanen diela aipatu pasiboei hurrengo ekitaldietan. Horretarako, epe ertaineko inbertsioei eman beharko litzaieke lehentasuna, hauexek kontuan hartuz: bete nahi diren helburuak, inbertsioen kostua eta finantzaketa-beharrizanak, berekiak zein inorenak.

VI.3. KONPROMISOAK ETA GORABEHERAK

Alkatetzaren 1993ko abenduaren 2ko erabakiak eraikitzeke obra batzuk egiteko lizentzia eman zuen. Udal talde batek errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri zion, aipatu eraikuntzak Udalaren hiri-plangintzaren arau subsidiarioak hausten zituelakoan. 1998ko otsailaren 12ko epaiak errekurtsioa onetsi zuen, eta ondoriorik gabe utzi zuen aipatu obra-lizentzia. Udalak, gero, beste errekurtsio bat aurkeztu du aipatu epaiaren kontra. Txostena egiteko garaian ez dago horri buruzko erabakirik.

Gaur egun, ezin ditugu zehatz finkatu auzi honek Udalari erakar diezazkiokeen eragin ekonomikoak.

VI.4. BESTELAKO IRUZKINAK ETA KUDEAKETARAKO GOMENDIOAK.

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsueni buruzko gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko Udalak onetsi beharko lituzkeenak, Ganbararen ustez.

VI.4.1. Aurrekontuak eta kontabilitatea

1997ko martxoaren 6an onetsi zuen Osoko Bilkurak 1997ko ekitaldiko aurrekontua.

1998an ekin diote Toki Sektore Publikoaren Kontabilitate Plan Orokorra ezartzeari.

Hona kudeaketa-alor honetako gomendioak:

- *Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak landu eta onesteko.*

- *Betetze-oinarriak ⁽²⁾ gehitu behar zaizkio aurrekontuari, aurrekontu-kontusail nagusien izaipidatzea eta betetzea arautzeko, eta administrazioko eta kontabilitateko oinarritzko prozedurak finantzatzeko.*

(2) 1998ko aurrekontuan jasota dago.

VI.4.2. Udal inbentarioa

1992an egin zuten Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa eta ez dute eguneratu.

Udal inbentarioa eguneratzea gomendatzen dugu, Udalaren jabetzapeko ondasun guztiak fidelki isla ditzan.

VI.4.3. Langileen ordainketak

Hona 1997ko abenduaren 31n Udalaren zerbitzuan ari diren langileen zerrenda:

Funtzionarioak	2
Lan-kontratuko langile finkoak	2
Aaldi baterako lan-kontratuko langileak	1
Guztira	5

Bigarren eranskinean erakusten da Udalaren zerbitzuko langileen organigrama. Banku-entitate batek kudeatzen du gordailuzaintza.

Hauexek gomendatzen ditugu, alor honetako lan- eta kontabilizatze-prozedurak aztertu eta gero:

- *Nominak egin eta kontabilizatzeke prozedura idatziz jasotzea.*

- *Hileroko nominak egitea Udaleko langile guztiarentzako.*

- *Udal langile bakoitzarentzako administrazio-espeditente eguneratua edukitzea. Haren gorabehera pertsonalak eta lan-biziaren egintza eta dokumentu esanguratsuak jaso beharko lituzke.*

- *Indarrean dagoen legedia betetzea, alegia, dagozkion lan-kontratuak egitea, eta PFEZaren menpe dagoen ordainketa orori atxikipena egin behar zaiola.*

- *Aplikazio informatikoa ezartzea, nominen prozesua kontabilitatean sartzeko. Langileen kudeaketaren jarraipen eta kontrolaren hobekuntza ekarriko du horrek.*

- *Atezaintza eta kontserbazio zereginetan ari diren langileen egoera finkatu, alegia, lan-kontratu-jardunaldi mugatuarekin, esate baterako, edo zerbitzuen errentamendua erabili, ez baitago dagokion kontratu edo esleipenik.*

- *Plantila organikoa eta langileen zerrenda urtero argitaratu behar da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, indarreko legediak ezarri duenarekin bat.*

• *Kilometroak direla-eta ordaintzen den kopuru finkoa indarreko legeak aurreikusi osagarrietan sartzen saiatzea; beraz, nominan sartu eta dagokion PFEZ atxikipena egitea.*

VI.4.4. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.

Gastu-aurrekontuaren kapitulu honetan sartu dira langileen gastu batzuk -934.000 pezeta-, eta ohiko transferentzien gastu batzuk -498.831 pezeta-. 1997ko aurrekontuak, bestalde, ez du 2607.246 pezetako kopurua jaso, sortzapenaren arabera ekitaldi horretan jaso behar bazen ere.

Hauexek gomendatzen ditugu, prozedurak eta kontabilizaturiko kopuruak aztertu ondoren:

• *Erosketak egiteko arauak finkatzea. Honako hauek sartu beharko dira, beti ere:*

a) *Gastua aurretik baimentzea, aurretik erabakitako kopuru txikiko erosketetan salbu.*

b) *Eskaerak idatziz egin beharra: eskaintzak eskatu edo prezio eta baldintzak jaso hainbat hornitzaileengandik.*

c) *Ordainagiriak berrikusi eta egiaztatzea.*

• *Justifikazio-euskarri egokia erantsi kontabilitateko dokumentuei, dagokion baimena eta guzti.*

• *Dagokion arduradunaren oniritzia erasota utzi ordainagiritan, benetan jaso diren ondasun eta zerbitzuei dagozkiela egiaztatzeko, ezarritako kalitatea eta prezioaren arabera. Dagozkion albaranak ere erantsi.*

• *Zerbitzu-errentamenduen kontratuak formalizatu eta esleitu, indarreko legediak ezarri prozeduren arabera.*

• *Sortzapenaren hatsapena zorrotz aplikatzea gastuak kontabilizatzerakoan, eta aurrekontuko kontusailetan sartu, izaeraren arabera.*

VI.4.5. Gastuen ohiko transferentziak

Alor honetan kontabilizatu diren zenbatekoak aztertu ondoren, zera atera dugu: gastuaren izaerari begiratz gero, badirela 5.590.662 pezeta, gutxi gorabehera, ohiko ondasun eta zerbitzuak erostean kapituluaren sartu beharrekoak.

Hona alor honetako gomendio nagusiak:

Emandako dirulaguntzak aztertu eta onesteko plana egitea, dirulaguntzak behar bezala eman eta erabiltzen direla ziurtatu ahal izateko.

VI.4.6. Inbertsio errealak.

Aitorturiko betebeharrak 71.258.584 pezeta egiten dute: gastu guztien ehuneko 27a. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 79a bete da.

Ondoren jarriko dugu 1997ko inbertsioen zehaztapena:

	Pezetatan
Hornidura sareak berritzea, II. fasea	33.658.319
Argiteri publikoa berritzea, II. fasea	9.353.783
Ubideko eustorma	13.242.050
Abelazkuntza-poligonoa egokitzea	3.270.702
Oroit-idazkiak eta proiektuak	3.720.365
Bestelakoak	8.013.365
Guztira	71.258.584

Obra garrantzitsuenak aztertu ondoren, hurrengoak azpimarratuko ditugu, oro har:

• Ez da kontraturik egiten Udalaren eta esleipendunen artean.

• Obra-proiektuak burutzea zuzeneko kontratazioaren bidez esleitzen da.

• Aztertu diren obretan likidatu diren betebeharrak ehuneko 4 eta 8 bitarteko desbideraketa erakusten dute, esleitutako kopuruekin alderatuz gero.

• Ubideko hormaren obrari dagokion dokumentazioa aztertu dugu eta hauxe ikusi ahal izan dugu:

a) Obra zuzenean esleitu zen -11.672.195 pezeta, lizitazioa 11.715.918 pezeta izan bazen ere-, lau kontratistari lizitazio-eskaintzak aurkezteko gomita egin ondoren. Ehuneko 50na esleitu zitzaizen eskaintzarik merkeenak aurkeztu zituzten bi enpresei.

b) Ez zitzaizkien behin betiko fidantzak eratu enpresa esleipendunei.

c) Obraren zuinketa egiaztatzeko akta ez zen formalizatu.

d) Obrak bukatu eta hilabete baino gehiago pasatu zen obra behin-behineko hartzeko aktak formalizatu arte.

e) Epigrafe honetan sartu dira 116.000 pezeta inguru, "ubideko horma"ren konponketa arrunt gisa, eta ez zeuden obraren proiektuan: 2. kapituluaren sartu beharko lirerateke, gure ustez.

Aurreko lerroaldetan esandakoa ikusita, hona gomendioak:

- *Kontratuari buruzko Foru Legea eta kontratazio publikoa arautzen duen gainerako legedia zorrotz aplikatzea.*

- *Inbertsioak behar bezala burutuko direla bermatzeko barne-kontrol bideak ezartzea. Inbertsioen kudeaketa zuzenak eskatzen dituen oinarrizko aldeak aurreikusi, hots, prozeduraren eta legearen aldekoak, hala ekonomiaren eta arrazionaltasunaren aldetik, nola legezkotasun hatsapenarenetik.*

VI.4.7. Tributu dirusarrerak

1997ko aurrekontuaren likidazioarekin bat, tributu dirusarrerak Udalaren dirusarrera guztien ehuneko 30 dira.

Ondorengo laukian agertuko da dirusarrera horien betetzea, tributu-kontzeptuka sailkatua:

Tributu kontzeptua	Likidaturiko eskubideak (pezetatan)	Likidatu guztiaren gaineko %
Landa kontribuzioa	2.980.860	4
Hiri kontribuzioa	17.209.431	20
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	4.770.138	6
Zuzeneko zergak, guztira	24.960.429	30
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	5.730.581	7
Zirkulazio zerga	6.991.217	8
Telefonikaren kanona	519.993	1
Zeharkako zergak, guztira	13.241.791	16
Ur horniduraren tasa	13.346.380	16
Estolderia tasa	4.034.000	5
Zaramaren tasa	7.674.591	9
Kiroldegiairen tasa	7.601.915	9
Dantzalekua	2.013.000	9
Herrilurren tasa	7.292.260	9
Iberdrolaren tasa	1.052.052	1
Beste tasa batzuk	2.955.889	3
Tasak eta bestelako dirusarrerak, guztira	45.970.087	54
Tributu dirusarrerak, guztira	84.172.307	100

Udalak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira aipatu zerga-tasak.

Alor honetako kontrol-prozedurak eta kontabilitaturiko kopuruak aztertu, eta zera egiaztatu ahal izan dugu:

- Itxitako ekitaldien erresultetan badirela tributu-dirusarreretatik heldu diren kopuru batzuk. Azterketa egin ondoren atera dugun ondorioa

zera da: horietako batzuk ezin direla kobratu, hain dira eta aspaldikoak: 3.039.381 pezeta, gutxi gorabehera.

- Eragiketak sortzapenaren eta izaeraren arabera jasotzeari dagokionez, hona antzemandako akatsen gutxi gorabeherako zenbatespena:

	Pezetak
1996an sortu eta 1997ko aurrekontuak jasoak	
Telefonikaren kanona	21.177
Iberdrolaren tasa	178.047
Herrilurren probetxamendua	3.695.567
Guztira	3.894.791
1997an sortu eta 1998ko aurrekontuak jasoak	
Telefonikaren kanona	166.272
Zeharkako zergetan jaso diren tasak eta bestelako dirusarrerak	519.993
Tasak eta bestelako dirusarrerak atalean jaso diren ohiko transferentziak	176.500

Kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilitaturiko kopuruak aztertu ondoren, hauxe gomendatzen dugu:

- *Kobratzeke dauden kopuruak kobratzeko aukerari buruzko azterketa sakon eta aldikakoak egitea.*

- *Tributu-dirusarrerei dagozkien erroldak eta haien aldaketak onetsi egiten badira era, onespena ez da agirietan jasotzen, inondik inora.*

- *Kanpoko agente betearazlea kontratatzea, ordaindu gabeko ordainagiriak kobratzeko lana arintzeko.*

- *Tributu-dirusarrera guztiek, indarreko legedian esandakoak salbu, dagokien ordenantza behar dute izan, Osoko Bilkurak behar bezala onetsia. Urtero onetsi behar dira ekitaldian erabili beharreko karga-tasak eta tarifak.*

VI.4.8. Dirusarreren ohiko transferentziak

Likidaturiko eskubideek 73.638.720 pezeta inguru egiten dute -dirusarrera guztien ehuneko 26-, eta hurrengo kontzeptuak jasotzen dira, funtsean: funtzionarioen bahiturretzearen finantzaketa, toki ogasunen probintzia fondoan partehartzea eta Estatuko tributuetan partehartzea.

Kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilitaturiko kopuruak aztertu ondoren, zera egiaztatu ahal izan dugu: 1996ko ekitaldian eta aurrekoetan

sortutako hainbat dirusarrera sartu direla dirusarrera-aurrekontuaren likidazioan: 780.492 pezeta. Beste alde batetik, ez dira 1997ko ekitaldian sortu diren dirusarrera batzuk sartu: 325.000 pezeta, gutxi gorabehera.

VI.4.9. Inbertsio errealak besterentzea

Likidaturiko eskubideek 25.939.419 pezeta inguru egin dute -dirusarrera guztien ehuneko 9-, eta lurrak eta etxebizitzak besterentzea jaso dute.

Alor honetako kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko kopuruak aztertu ondoren, zera egiaztatu ahal izan dugu: 1997an, Udalak zuzenean besterendu duela lursail bat, 15.080.000 pezetatan (BEZa barne), eraikuntza interes orokortzat jo eta gero. Izan ere, salmenta/alokairu araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke zen lursail hori.

Udalak, beste alde batetik, 274.950 pezetako dirusarrera erregistratu du, Udalak aurretik saldutako lursail bat partikularren artean besterentzearen gaineko eskualdaketa-eskubide gisa. Egiaztatu ahal izan dugunez, Udalak bere lursail bat partikular bati saltzen dionean, horri buruzko klausula bat sartu ohi du esleipen-erabakian.

VI.4.10. Diruzaintza

Alorra aztertu eta prozeduren akats batzuei antzeman diegu. Horiek zuzendu behar direla uste dugu, hurrengo gomendioekin bat:

- *Funtzionamendua araupetzeko arauak finkatu eta idaztea.*

- *Ordainketak eramailearentzako taloiekin ez egitea, ahal dela.*

- *Aurretik finkaturiko kopuru jakin bat gaindizten duten ordainketek baimen mankomunatua beharko lukete.*

- *Udalak finantza-entitate berean dituen kontu korronteen kopurua gutxitzea, jarraipena eta kontrola errazteko.*

- *Udalaren jabetzapeko kontu guztiak sartzea kontabilitatean eta zenbaketa-aktan.*

- *Finantza-entitatetan dauden fondoek diruzaintza-berdinkatzeak egitea, hilerok. Udal fondoek arduradunek dokumentatu eta izenpetu beharko dituzte aipatu berdinkatzeak.*

VI.4.11. Hirigintza

Udalak baditu udal arau subsidiarioak, eta katastroak etengabe eguneratzen dira. Hirigintza-aren Udal Plana idazten ari dira, egun.

Udalak ez du lurzorua udal ondarerik eratu.

Lurzorua udal ondarea eratzea gomendatzen dugu, baita planeamendua egungo hirigintza-legediari egokitzea ere.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN ETA AURRERAKINEN ZERRENDA,
1997ko ABENDUAREN 31n (pezetatan).**

Mailegua/aurrerakina	Zertarako	Hasierako zenbatekoa	Korritu %	Año de Epemuga	7/12/31n dagoen kapitala
Banco Crédito Local,	Larrainen urbanizazioa, udaletxea eta frontoia	46.130.964	5,75	24/08/2004	29.985.128
Nafarroako Rural Kutxa,	Sareak berritzea: I. fasea	38.165.677	MIBOR + 0,5	30/06/2009	29.260.354
Nafarroako Rural Kutxa	Argi publikoak: I. fasea	10.203.205	MIBOR + 0,5	30/12/2009	8.162.563
Nafarroako Rural Kutxa	Sareak berritzea: II. fasea	16.500.000	MIBOR + 0,3	31/12/2012	16.500.000
Nafarroako Rural Kutxa	Kiroldegia	6.545.871	Asoc.Hipot. + 2,5	06/05/2000	2.805.375
Riegos de Navarra, SA,	Ureztaketa	1.045.449	7,50	24/04/2007	693.109
Riegos de Navarra, SA,	Ureztaketa	5.391.705	7,50	27/01/2010	4.253.533
Riegos de Navarra, SA	Nekazarietzako kalteordaina	10.330.000	7,50	03/11/2007	6.848.544
Riegos de Navarra, SA,	Lursailen birrantolaketa	6.470.447	7,50	14/11/2006	3.979.277
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Hainbat obra	12.000.000	4,93	17/06/2006	10.800.000
	Guztira	152.783.318			113.287.883

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1997ko ABENDUAREN 31n

